

Beñat Estornes Lasa

JOAN MARI TORREALDAI



EUSKO Ikaskuntzak Manuel Lekuona Saria Beñat Estornes Lasari eman dio orain-tsu, honen lan oparoa saritu-asmoz. Asko poztu nintzen saria-
ren berri jakitean. Geroztik tristetu naiz pittin bat gizartearen izan duen oihartzun eskasa ikusi. Zein esker gaiztoko agertzen gatzazkiekin holakoei askotan! Historia azkar doa bai, baina badirudi, bestalde, norbaitek nonbaiten programatu egin duela gure desmemoria kolektiboa. Geure historia-txoa ere ez dugu ezagutzen. Eta ondorioz, sozi sozial gutxi —gutxiegi!— jasotzen dute Beñat bezalako langileek. Telesibatik pasatzen ez dena ez da esizitzen, eta kitto! Beñat idazle, ikertzaile eta kultur animatzaile da, izan da batez ere. Familiarteko kultur enpresa bat sortu eta mantendu du, eta ondorengoei 'testigu' pasa. Beñatengan nahi batez ere miresten dudana bere bokazio kulturala da, eta, noski, honekiko atxekimendua bizitza osoan.

84 urte ditu Beñatek. Isaban sortu eta Donostian bizi izan da gehienbat. Ez nahi adina, euskal kulturako beste sursperitzaile askoren antzera, gerra garaian ihes egin behar izan bait zuen. Parisen eta Chilen bizi izan ondoren, desterratik bueltan, 1958an, gerragatik utzi behar izan zuen lanari ekin zion atzera. 1934ko 'Beñat Idazkiak' argitaldian *Auñamendik* emango dio segida. Frankismoa bizi bizi zegoen. Estomestarrak susmagarriak ziren erremienekontzat, fitxatuta zeuden.

Frankismoaldiko kultur Torquemadekin izandako makina bat anekdota kontatua dit Beñatek. Egunen baten emango ditugu argitara, gizon/emakume hauen kultur lanaren nekez gaizte-jendea jabe dadin.

Iparraldeko indarkeria

IÑAKI ZABALETA URKIOLA



JOAN DEN asteazken honetako EGUNKARIAK zekaren berri batek zindo mindo utzi nau. Iparraldeko Eusko Alderdi Jeltzaleak 'Ager' aldizkarian editoriala argitaratu omen du Iparraldean biolentzia utergerria dela esanez. «Ipar Euskal Herri-rako instituziorik izango ez den bitartean, gure ustez ez daukagu eskubiderik beste biderik aukeratzaren dutenak kondentatzeko», zioen Ximun Haran Ipar Buru Batzarreko lehendakariak.

1992. urtean gauden honetan, Frantzia demokratiko eta «demokraziaren aintzindari» honetan, nola esan dezake batek biolentzia utergerria dela berak nahi litzukeen instituzioak (kasu honetan euskal instituzioak) ez dauden bitartean? Zertan da, bada, Frantziaren demokrazia Espainiakoarena baino txikiagoa. Hegoaldeko EAJk hemen indarkeria gaitzetsi dezan eta Iparraldekoak han ez? Arroznamendu horrek biolentziaren gakoa honetan jartzen du, euskal instituzioak izan ala ez. Betiko leioaren susmoa hartzen diot guzti honi. Komeri denean biolentzia toleratu, edo aboptetik onartu... Hegoaldean Francoren azken urteetan egiten zuten bezala. Jakina, orduan indarkeriaren odola diktadurak gizendua baitzen. Baina orain demokrazian ez da behar, gizar-teak ba bait ditu bere euskal instituzioak hemen, eta Iparraldean honelakorik ez dagoenez ba ulergaria indarkeria... Nor dago orain 'biolentzia ororen aurkako' esaldia. Hegoaldean maiz oihukatua eta gutxitan bete? EGUNKARIAREN albiste hori horretan geratuko da: albiste. Baina atzerik historia luzea du horrek, komenientziarena.

EL MUNDO EAJren tentaldia

EAJren egungo armonia, une hauetan Xabier Arzalluzek gauzaten duen lidergo eztabaiaezinean oinarritzen da, eta baita azaldu ere.(...)

Arabian Xabier Agirre, Bizkaian Gemika Klana eta Gipuzkoan Arregiren taldearen inguruan presio taldeak daudela esatea, garrantzirik gabeko pasadizua baino ez dira, barne hauteskunderi emozio eta kolore apur bat emateko.

DAVID BARBERO

Diario 16 Egurra Jugoslaviako suari

Europako Komunitateak Kroazia, Eslovenia eta, agian Mazedonia eta Bosnia-Herzegovinarekin independentzia onartzeko egun gutxi geratzen direnean, gerraren gogortzea iragar-tzen duten ekaitzak agertu dira hodei-ertzean. Beograden kokatu da Armada federalaren lerrorik gogorrena, Defentsa ministro Blagoje Adzic-nerala izendatzearekin. Duela bi urte,



Mauroy-k: «...». Jospin-ek: «Zer esan du?». Fabius-ek: «Fabius». PLANTU/ LE MONDE

herriaren batasuna erasotzen zutenak gerra eta estatu kolpearekin mehatatu zituen Adzicek. Honek orduan, 100.000 hildako baino garrantzitsuagoa zela Jugoslavia sendo bat onartu zuen. Zalantzarik gabe abisu haren lehen zatia gauzatzeko bidean dago.

SUB QUEST

Jokalaria

Maastrichteko akordioa sendeste-ko proiektuarekin, François Mitte-

trandek berebiziko aukera dauka oposizioari bidea zailago egiteko.(...)

RPR eta zer esanik ez UDF alderdiko—horren barruan bi sentsibilitate desberdin daude Europari buruz—arduradunek, zerk zatitzen dituen gehiegi ez azaltzen saiatzen dira eta hori gizabidezkoa da. Baina egunetik egunera alderdi politikoek beharrezkoagoa dute beren aukera komunitario argi azaltzea. François Mitterrandek badaki modu batean edo bestean egia-oren ordua berehala etorriko dela zentzu horretan.

FRANC DE BONDT

Le Monde

Aldatu, noraino?

Lekukoa belaualdi batetik bestera pasatzea, baita sozialdemokrata komentzitu batetik elite frantsiaren neoliberalismoaren ondorio hutza den batera igarotzea ere, ez da beste bira bat ezkerren historian. Agian, Archeiko kongresu «ideologikoen» ondoren, hau izan da PS alderdiaren doktrina eguneratzea ahalbideratu duena, bere praktika liberalaren kodifikazioa, postmitterrandismoaren lehen ekintza sortzailea. hain zuzen ere.

JEAN-MARI COLOMBANI

ZUZENDARIARI

Joseba, ze urrun dago gure euskera

Duela urte batzuk azaldu zen panorama politikoan. Gizon adotsu, erakargarri, sinpatikoa zirudien. Euskara garbiz mintzatzen zen eta jendearen mirespena sortzea lortzen zuen. Bere burua euskaltzale eta abertzaleztat definitu zuen, hau da, aberria eta 'bere' hizkuntza maite zituen gauza guztien gaineratik. Gaur egun Eusko Jaurlaritzako kultura sailburua genuke.

Abenduko astelehen batean hurrengo urterako kultur instituzio, elkarte, erakunde eta abarrentzako beren ekintzak betetzeko dirulaguntza zein izango zen aditza eman zuen. Aurrekontuaren aurkezpena bukatu ondoren gure pertsonaia haur iragarri zuen: «Beste atal guztientzako diru iturriak itxiak gelditzen dira». Hasera batean esaldi honen garrantziak ez gintuen harritzen, konturatu ginen arte aurrekontu honetatik xoxik jasoko ez zuten elkarteak, Euskal Kulturaren ordezkaririk adierazgarrienetako batzuk izango zirela, hots: Trikitilari Elkarteak, Dantzarien Biltzarra, Idazleen Elkarteak, Bertolarien Elkarteak eta urte bat berri duteen EGUNKARIAK, beste hainbat elkarkideren artean.

Eta arrazioa, lotsagarria bazen ere, bakarra. Kanpoko

iharduerak —Expo 92— eta makroekintza kulturalak —Guggenheim museoa, Anoetako kirol estadioa— bultzatu eta finantzatu zituen eta hau zela eta dirulaguntza, txikien esparruan erabat mugatu zuen.

Horrela, azken urteko aurrekontuarekin gonbaratuz 1.500 milioi gutxiago jasoko zituztela aditza eman zuen eta isilean eta desinteresatuki saiatzen ari ziren eta gaur egun ezinbestekoak liratekeen kultur taldeen bizitza, arriskuan jarri zuen.

Eta guzti hau horrela izanik, niri, beste askori bezala, kezka eta zalantza hamaila sortzen zaizkit nire barnean. Non gaude eta noren eskutan dago gure hizkuntza, eta hau suspertzten saiatzen diren elkarte eta erakundeak?

MIKEL AZKUNE
Azpeitia (Gipuzkoa)

Zorionak

Zorionak benetazko EGUNKARIA bat urtebetik funtzionatzeagatik eta ez bakarrik kalean egoteagatik.

Ikusten duzue, animatu gara eskutitz hau idatzera denok ezagutzen ditugun baldintz eskasak gaitziduta, euskararen berreskurapenerako oso garrantzitsua den egunero tresna honek bizirik irauten duela.

Baina gure benetako asmoa ez da tresnaren baliogarratasuna gorapatzeko soilik, hau jakina bait da guztion artean.

Guk nahi duguna gure euskarazko klaseetan honek irabazi duen toki garrantzitsua azpimarratzea da, klaseen prestaketarako oinarritzko material birhurtu zaigularik.

Irakurmena hizkuntz trebetasun bezala hartuta, honen lanketarako eskeintzen digun aukera paregabea kaleratu nahi dugu, honen bidez, irakurmena gaurkotatuz eta ikasleak motibatuak lantzen dugulako.

Urtebete pasa da eta ia ez gara gogoratzen, baina EGUNKARIA ez zegoenean nola moldatzen ginen?, berriz ere eskerririk asko euskararen irakaskuntza eta berreskurapenerako bide honetan zuen hazia jartzeagatik.

Hemendik txalo bat guztioi!
EGIAKO AEK-KO
IRAKASLEAK
Donostia

B. Kapanaga idazleari

Zure artikuluia —«Matxismo» euskera erabilian— oso interesgarria eta beharrezkoa iruditut zait, jakinik hizkuntz erabilerak zein inplikazio dituen gizartearen jokabidean.

Komenigarria izango litzateke bide honetan zuek egindako «erreflexioak» maizago agertzea.

MARIA JESUS FORCADA
Donostia

PERTSONAIA



Xabier Arzalluz

Arzalluz jauna berriro ere hor daukagu lanerako askatu dituz korapiloak ta zuzendu hainbat kako hautagaietan bakarra da ta berak jarraitu beharko izan dadila alderdia ta Euskadiren onerako

JON AZPILLAGA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIEZ ETXEZAHARRETA

IÑAKI URIA

Publizitatea:

KORNELJO ROTETA

EGUNKARIA

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritziz dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskua. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11